

## UROLA-REN ERTZEAN.

---

NERE ADISKIDE MAITE JUAN JOSE ECHANIZKOARI DONEKIDATUA.

¡Zeñen ederki doan ibaiya  
*Artadi-péan<sup>1</sup>* garbirik!  
 Ederrak dira bere bazterrak;  
 Zuaitzez daude jantzirik,  
 Zuaitz<sup>2</sup> oetan agertzen dira  
 Orri tartean gorderik,  
 Chori pollitak gor gor egiñaz  
 Atsegíñ gozoz beterik.

—

Ikusten dira udaberriyan  
 Ibai-ertz eder oetan,  
 Soroak mardul; sagastiyan,  
 Sagar guriyak loretan;  
 Marrubi piñak gorriturikan  
 Lurra-sagasti ayetan;  
 Uso garbiyak diruditela,  
 Eche churiyak gañetan.

—

Entzuten dira alositzuzko<sup>3</sup>  
 Kanta biziro poztiyak,  
 Oiarzunaren<sup>4</sup> soñuarekiñ  
 Erantzunikan mendiak;  
 Aizeak ere, zuaitz danetan  
 Mugitzen ditu orriyak,  
 Estalirikan beren artean  
 Arkitzen diran choriyak.

—

Gau osgarbiyan, illargiyaren  
 Erantza<sup>5</sup>. guziz garbiya,

Azaldutzen da uren gañean  
 Ederturikan ibaiya;  
 Isillik dago, ordu aetan,  
 Isillik, sortitz<sup>6</sup> guztiya;  
 Bakar-bakarrik ulertzen<sup>7</sup> degu  
 Uraren mur-mur biziya.

—

Loreak alde batetik, eta  
 Zelai ederrak bestetik,  
 Uda beroan ikusten dira  
 Bazter oetan mardulik;  
 Mendiak ere urdiñik daude,  
 Belar ugariz jantzirik,  
 Ez da etorri igartutzera  
 Negu goibela oraindik.

—

Baña ȝzer diyo, etorri arren  
 Negu odehyez betea,  
 Baldin emengo zugastiyan<sup>8</sup>  
 Nagusi bada artea?  
 Zuaitz onentzat ez da negurik,  
 Beti dago chit ezea;<sup>9</sup>  
 Ostoa dauka, beti berekiñ  
 Guziz ederki gordea.

—

¡Zeñ ariñ doan chalupacho bat  
 Mendiska<sup>10</sup> baten oñean!  
 ¡Zer atsegíñez dagon jendea  
 Chalupa orren gañean!

(1) Alude al barrio de San Miguel de Artadi.=Dedicar.—(2) Zuaitza=Arbol.—(3) Alositzuzko=armonioso.—(4) Oiarzuna=El éco.—(5) Erantza=El retrato.—(6) Sortitza=La naturaleza.—(7) Ulertu=Sentir.—(8) Zugastiya=Arboleda.—(9) Ezea=Verde.—(10) Mendiska=Colina,

Agertzen dira erantzaturik  
Ibai basterrak urean;  
Goitikan beera, beetikan gora  
Arrai pizkorak urpean.  
—

Iruditzen zait, alde oetan  
Ederra dala guztiya;  
Iruditzen zait, osoro dala  
Ibar pollita Oikiya;  
Ezagutzen det antzeztutzeko<sup>1</sup>  
Añ ederra dan tokiya,  
Ez naizala gai;<sup>2</sup> nik dudan luma  
Amutsa dala, chikiya.  
—

¡Bazter ederrak! Ikusirikan  
Zeñen ederrak zeraten,

Miragarriya dala sortitza  
Pentsatutzen naiz egoten;  
Zoraturik edertasunak  
Auzpezturik det esaten:  
«A! Zenbat doaiz Jaun Zerukoak  
Munduba duan apaintzen.»  
—

Jarraitu zazu, Urola, zure  
Joaira<sup>3</sup> itsas-aldera,  
Joan zaite pizkor, bere kolkoan  
Pozez beterik sartzera;  
Joan zaite bada itsas-urekiñ  
Zureak oso naastera;  
Agur; nik beti kantatuko det  
«Ikusgarriya chit zera.»

ECHEGARAY-KO KARMELO-K.

Santander-en Beltzilla-ren 25-an 1883-an.

### EL PAÍS BASCO JUZGADO POR LOS EXTRANOS.

En el notabilísimo libro de filosofía LUZ EN LA TIERRA, de D. Abdon de Paz, que es demostración perfecta de que entre la Religión Católica y la Ciencia no existen conflictos, obra publicada por la Real Academia de Ciencias morales y políticas, se leen las siguientes líneas:

«España presenta un ejemplo, siquiera deficiente, de esta democracia cristiana, en un país cuyos fueros admiró Rousseau, cuyo clima ensalzó Bismark, cuyas costumbres cantaron los poetas, desde Tirso á Victor Hugo; país libre por sus instituciones, y religioso por sus sentimientos; pobre por la naturaleza, y rico por el trabajo; cuyas sendas se vén cubiertas de fuentes y de cruces, el progreso material junto al moral; cuyas romerías conservan la alegría de los tiempos patriarciales; y cuyos moradores acuden espontáneamente, al son de la campana, á enterrar al vecino difunto, como acuden gratuitamente, á la voz del sacerdote, á labrar la heredad de la viuda y del huérfano. ¡Envidiado país el cobijado por las ramas del sacro-santo árbol de Guernica!»

(1) Antzeztu=Pintar.—(2) Gai=Capáz.—(3) Joaira=Curso.

